

# BESTELAKO XEDAPENAK

## GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

### 1920

*EBAZPENA, 2023ko apirilaren 4koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baitira profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko lau beka, 2023rako, garapenerako lankidetzaren arloan.*

Martxoaren 21eko 62/2017 Dekretuak (2017ko martxoaren 24ko EHAA, 59. zk.) arautzen ditu garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak.

Dekretu horren 4.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko 2023ko beken deialdia egin behar da.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 9ko 5/2008 Legearen 10.b) artikuluan ematen zaizkion eskumenez baliaturik, 2023ko otsailaren 8ko bileran, erabaki zuen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari proposatzea beken deialdia eta horiek emateko oinarritzko irizpideak onartzea.

Lankidetzaren arloko profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko beken deialdia Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2023. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen da (Kontseilu Errektoreak onartua, 2023ko otsailaren 8ko bileran). Dirulaguntzen Plan Estrategikoak lehentasunezko arloen artean du agenteak indartzea. Hala, beka-deialdiak helburu hori lortzen lagunduko du, gazteei garapenerako lankidetzaren arloan espezializatzeko aukera emanez.

Era berean, beken deialdiak bete egiten ditu Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planean (2018-2021) aurreikusitako azken helburuak (plan hori 2022-2024 aldirako luzatu zen, Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 20ko akordioaren bidez).

Bai Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana (luzatua), bai Dirulaguntzen 2023ko Plan Estrategikoa argitaratuta daude Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian: [www.elankidetz.euskadi.eus](http://www.elankidetz.euskadi.eus), «Nortzuk gara» atala, «Plangintza» azpi-atala.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2023ko ekitaldirako aurrekontuak –Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legearen bidez onartuak– kreditu nahikoa aurreikusten du lankidetzaren arloan profesionalen espezializazio eta prestakuntzarako beken deialdia finantzatzeko.

Hori dela eta, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko lau beka deitzea 2023ko ekitaldirako. Beka horien helburua da, bekak arautzen dituen martxoaren 21eko 62/2017 Dekretuaren hitzaurrean adierazitakoaren arabera, gazte profesionalen gaitasunak, ezagutzak, prestakuntza eta espezializazioa garatzen laguntzea garapenerako lankidetzaren eremuan.

2.– Hauek izango dira beka bakoitzaren espezializazio- eta prestakuntza-eremuak:

a) Generoa eta garapena. Genero-ikuspegia txertatzea, bai genero-ikuspegia zeharka sartuz lankidetzako proiektu eta ekimenetan, bai ekintza espezifikokoak garatuz.

b) Ekintza humanitarioa. Antolakunde humanitarioak indartzea; krisi humanitarioak jasan dituzten komunitateak eta pertsonak babestea; euskal herritarrak sentsibilizatzea; eta agenteak koordinatzea.

c) Gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta komunikazioa. Prestakuntza eman eta gaitasunak sortzea; eragin eta komunikazio hezitzaileko zereginak betetzea; erakundearteko eremua koordinatzea; eta ikaskuntzaren kultura sustatzea.

d) Giza eskubideak defendatzen dituzten komunitate, antolakunde eta pertsonak babestea. Hau da, ezagutza sortzea; babesaren gaineko ekimenei laguntza ematea, eta babes eta eragin politikoaren alde komunikatzea.

2. artikulua.– Onuradunak.

Beken onuradun izan ahalko dira laguntza hauek arautzen dituen martxoaren 21eko 62/2017 Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak.

Ezingo dira beka hauen onuradun izan honako hauetan aurreikusitako inguruabarren batean dauden pertsonak: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua; Ekonomia zirkularerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikulua; Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikulua; eta Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua.

Beka hauek bateraezinak dira edozein lan ordaindu egitearekin eta garapenerako lankidetzaren eremuan unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen zuzendutako bestelako prestakuntza-bekak jasotzearekin, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura.

3. artikulua.– Zuzkidura ekonomikoa eta beken zenbatekoa.

1.– Gehienez 80.000,00 eurokoa da iragarritako beka-programaren zuzkidura ekonomikoa.

2.– Onuradun bakoitzak 20.000,00 euroko beka jasoko du gehienez (zenbateko gordina); zenbateko horrek barne hartuko du Gizarte Segurantzari egindako kotizazioengatik, bekaren onuradun gisa, ordaintzea dagokion zatia. Kopuru hori ordaintzeko, hilean 1.666 euro gordin ordainduko dira espezializazio- eta prestakuntza-aldiko lehen hamaika hilabeteetan, eta 1.674 euro, berriz, azken hilabeteetan.

3.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta Gizarte Segurantzari dagozkien arauen mende egongo dira jasotako zenbatekoak, hala dagokionean. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ordainduko ditu beken onuradunei eragiten dien Gizarte Segurantzaren araubide espezifikoak aplikatuz dagozkion kopuruak.

4. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabete izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.– Bitarteko elektronikoz aurkeztu beharko dira eskabideak, <https://www.euskadi.eus> egoitza elektronikoa (Izapideak; Dirulaguntzak eta bekak atala).

3.– Hemen eskura daitezke eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta aurkeztu beharreko agiriak nola izapidetu behar diren jakiteko xehetasunak: <https://euskadi.eus> egoitza elektronikoa eta [www.elankidetza.euskadi.eus](http://www.elankidetza.euskadi.eus) webgunean, deialdien atalean.

4.– Bekak eskatzeko inprimakiaren eredu normalizatua deialdi honen ebazpenari atxiki zaio (I. eranskina), haren edukiaren berri emateko soilik. Eskabidea telematikoki bete beharko da, oso-osorik.

5.– Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu>

6.– Eskabidean eskatzailearen sinadura elektronikoa aitortua agertuko da. Hala ere, eskatzaileak ordezkari bat beste pertsona bati eman ahal izango dio, haren izenean elektronikoki jardun dezan ebazpen honi dagozkion jarduketa guztietan, eta, horretarako, aukera hauetako bat erabiliko du:

– Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa kokatua (<https://www.euskadi.eus/ordezkarik/>), edo

– «Borondatezko legezko ordezkari egilestea inprimaki normalizatua» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), behar bezala formalizatua, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dena.

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

7.– Beka-eskabidea eta eskatutako dokumentazioa nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira (gaztelaniaz edo euskaraz).

8.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du deialdi honen oinarriek zehazten dituzten baldintzak berariaz eta formalki onartzen direla.

5. artikulua.– Eskabideen edukia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– I. eranskinaren arabera eredu normalizatuko eskabide-inprimakia osoz bete behar da telematikoki, eta eskatzailearen datu pertsonalak eta eskatu diren beka-espezialitateak jasoko dira bertan.

2.– Eskabideak erantzukizunpeko adierazpen bat ere barne hartuko du, zeinean bekaren eskatzaileak onartuko baitu alderdi hauek betetzen dituela:

a) Egiazkoak eta zuzenak direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako agirietan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.

b) Ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntza esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den ezein itzulketa- edo zehapen-prozeduratan. Halako prozeduraren batean badago, beka ordaintzeko, nahitaezkoa izango da eskatzailearen itzulketa- edo zehapen-prozedura amaitzea.

c) Eskatzaileari ez zaio ezarri laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapenik, ez administrazio-arlokorik, ez zigor-bidekorik, eta ez du halakorik eskuratzeko legezko debekurik; ildo horretatik, kontuan izan behar dira Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean

2023ko apirilaren 21a, ostirala

sexuagatiko diskriminazioa zehatzeko ezarritako zigor eta debekuak, eta LGTBIfobia egin, sustatu edo hauspotzeagatik edo bihurketa-terapiak egin edo sustatzeagatik ezarritakoak, Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

d) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta dituela.

3.– Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren edo lankidetzaren eremuan gutxienez urtebeteko esperientzia edukitzea egiaztatzen duten agiriak. Baldintza hau erakundearen ziurtagiriaren edo lan-bizitzaren, lan-esperientziaren edo boluntariotzako esperientziaren kopia digitalizatuaren bidez egiaztatu ahalko da.

b) Justifikazio-agiriak, 7. artikuluan ezarritako gainerako balorazio-irizpideak egiaztatzeko: egindako lanak eta argitalpenak, ikasketak edo ikastaroak, eta ingelesaren, frantsesaren edo portugalesaren ezagutzaren egiaztagirak.

Eskatzaileak ez badu eskabidean baimena ematen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak alderdi horiek egiaztatu dituzan, agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

a) NANaren kopia digitalizatua.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko erroldaren kopia digitalizatua, 2023ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa.

c) Unibertsitate-tituluaren kopia digitalizatua.

d) Euskararen ezagutza egiaztatzen duen tituluaren kopia digitalizatua.

Ez da nahitaezkoa izango eskaera honekin lotutako dokumentazioa berriz aurkeztea, baldin eta aurretik entregatu bada Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian eta indarrean jarraitzen badu.

6. artikulua.– Hautaketa-batzordea.

1.– Martxoaren 21eko 62/2017 Dekretuaren 9. artikuluan aipatutako hautaketa-batzordea, merezimenduak baloratuko dituen, hauek osatuko dute:

– Alazne Camiña Izkara andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoko arduraduna; batzordeburua izango da.

– Mónica Fernández Vidal andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria; batzordekidea izango da.

– Santiago Ramírez Cameno jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria; batzordekidea izango da.

– Miren Saiz Alzugaray andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria; batzordekidea eta idazkaria izango da.

2.– Hautaketa-batzordean hutsuneren bat badago edo titularren bat absente badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, hauek izango dira ordezkioak:

– Batzordeburua: Noemí de la Fuente Pereda andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Estrategikoaren arduraduna.

– Batzordekidea: Edurne Bengoechea Sorozabal andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Genero eta Garapeneko teknikaria.

– Batzordekidea: Maite Garmendia Eguinoa andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

– Batzordekidea eta idazkaria: Maria Pilar Díez Arregui andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

3.– Hautaketa-batzordeak, behar izanez gero, teknikari espezialisten laguntza izan dezake. Teknikari horiek batzordean hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botoa emateko eskubiderik ez.

7. artikulua.– Balorazio-irizpideak:

Balorazio-irizpideak martxoaren 21eko 62/2017 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoak dira:

1.– Garapenerako lankidetzaren edo hezkuntzaren gaineko ezagutza akademikoak, 20 puntu gehienez.

2.– Garapenerako lankidetzaren edo hezkuntzaren ibilbide profesionala, 20 puntu gehienez. Lan ordaindua eta boluntariotzako lana berdin baloratuko dira.

3.– Eskatzailearen profil akademiko-profesionalaren egokitasuna 25 punturekin baloratuko da gehienez: bekaren edo beken espezializazio-eremuetan izandako esperientzia, prestakuntza eta argitalpenak hartuko dira aintzat.

4.– Euskaraz jakiteagatik 15 puntu emango dira gehienez, irizpide hauen arabera:

B1: 5 puntu.

B2: 10 puntu.

C1 edo goragoko maila: 15 puntu.

5.– Atzerriko hizkuntzengatik 20 puntu emango dira gehienez. Ingelesa, frantsesa eta portugesa baloratuko dira; honela:

B1: 5 puntu.

B2: 10 puntu.

C1 edo goragoko maila: 15 puntu.

8. artikulua.– Ebazpena.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak aztertuko du eskatzaileen merezimenduen balorazioa, eta hautaketa-batzordeak deialdiaren ebazpen-proposamena egingo du.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak, ebazpen-proposamena ikusita-koan, dagokion ebazpena emango du. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta interesdunei jakinaraziko zaie, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Deialdiaren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabete izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe hori igarotakoan ez bada jakinarazpenik egin, interesdunek ezetsizat eman ahalko dute beren

2023ko apirilaren 21a, ostirala

beka-eskaria, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.9 artikuluan ezarritakoaren arabera –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua–, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako. Hala ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak berariaz ebazteko betebeharra izango du.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Garapenerako Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak arautzen dituen martxoaren 21eko 62/2017 Dekretuan ezarritakoaz gain, ebazpen honetan jasotako bekek honako hauek xedatutakoa bete behar dute: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua; eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarritzko araudia (lege horren erregelamendua 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 4a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,  
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2023ko apirilaren 21a, ostirala

## I. ERANSKINA

## ESKABIDE-INPRIMAKIA

## PROFESIONALAK ESPEZIALIZATZEKO BEKAK (BEK)

I. eranskin hau deialdi-ebazpenari erantsi zaio, eskabide normalizatuaren edukiaren berri emateko soilik. Profesionalak espezializatzeko beka eskatu nahi duenak ez du eranskin hau erantsi beharko; aitzitik, telematikoki bete beharko du, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orriaren bidez, «Laguntzak eta dirulaguntzak» atalean, edo [www.elankidetza.euskadi.eus](http://www.elankidetza.euskadi.eus) webgunearen bidez, «Laguntzak, beka eta saria» atalean.

Izartxo (\*) duten eremuak nahitaez bete behar dira.

**Hartzailea:**

Organismoa: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Instrukzio-organoa: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIako ZUZENDARITZA

**DATU PERTSONALAK****Eskatzailea:****Honela jarduten du**  Espedienteko pertsona/entitate interesdun gisa:  Honen ordezkari gisa:**Espedienteko interesdunak**

Eskabide batean interesdun bat baino gehiago bada, egin beharreko jarduna lehenengo agertzen den interesdunarekin egingo da (39/2015 Legearen 7. artikulua. Hainbat interesdun egotea)

Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Sexua

**JAKINARAZPENETARAKO DATUAK****Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira:**

Espedientea izapidetzen ari den bitartean, Administrazioak honi helaraziko dizkio jakinarazpenak:

**Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala\*****Kanal elektronikoa:** [Nire karpeta](#)ko jakinarazpen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Sartzeko, [identifikazio-bitarteko elektronikoa](#) bat behar da.**Kanal elektronikoari buruzko oharra:** Jakinarazpen elektronikora sartzeko ez bazara, jakinarazpena jartzen denetik 10 egun natural igarotakoan, epe hori igarotakoan, jakinarazpena baztertutzat joko da, eta hala jasoko da espedientean. Izapidea egintzat joko da, eta Administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

2023ko apirilaren 21a, ostirala

**Abisuak jasotzeko datuak**

**Nire karpeta**n jakinarazpen edo komunikazio bat daukazunean, abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

Helbide elektronikoa \* \_\_\_\_\_

Berretsi helbide elektronikoa \_\_\_\_\_

Telefono mugikorra \_\_\_\_\_

**Komunikazio-hizkuntza\***

Zuk aukeratutako hizkuntzan egongo dira idatzita posta elektronikoaren bidez eta abisu-mezuen bidez jasoko dituzun jakinarazpenak eta komunikazioak.

- Euskara     Gaztelania

**Datuak erabiltzeko baimena**

- Nire komunikazio- eta abisu-datuak Eusko Jaurlaritzako sailekin eta organismoekin izango ditudan harreman guztietarako erabiltzea nahi dut.
- Nire komunikazio- eta abisu-datuak espediente hau kudeatzeko erabiltzea nahi dut.

**BEKAREN DATUAK****Laguntza-modalitatea**

Programa: BEK

Lerroa: BA

**Aurkeztu beharreko agiriak - Ez dago eLankidetzan dagoen dokumentazioa aurkeztu beharrik**

Ez da nahitaezkoa izango eskabide honekin lotutako dokumentazioa berriz aurkeztea, baldin eta aurretik entregatu bada. Aurretik dokumenturen bat aurkeztu bada, horietako bakoitza aurkeztu zeneko deialdiaren urtea (2018tik aurrera) eta kodea adierazi beharko dira. Edonola ere, agiri horiek indarrean jarraitu beharko dute.

**Dokumentuen hizkuntza**

Dokumentuak euskara edo gaztelania ez beste hizkuntza batean baldin badaude, horiekin batera gaztelaniarako eta/edo euskararako itzulpena aurkeztu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

**Beka-eskatzailearen datu fiskalak eta haren egoitza kontsultatzeko datuak jasota dauden lurraldea/probintzia**

Lurraldea/Probintzia (zerga-betebeharrak) \* Hautatu aukera

Errolda-probintzia \* Hautatu aukera

Errolda-udalerrria \* Hautatu aukera



2023ko apirilaren 21a, ostirala

**Zein bekataratu aurkeztu den**

- Generoa eta garapena
- Ekintza humanitarioa
- Giza eskubideak
- Gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta komunikazioa

 Generoa eta garapena

Bekara aurkezteko motibazioa

 Ekintza humanitarioa

Bekara aurkezteko motibazioa

 Giza eskubideak

Bekara aurkezteko motibazioa

 Gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta komunikazioa

Bekara aurkezteko motibazioa

2023ko apirilaren 21a, ostirala

**CURRICULUM VITAEA****Prestakuntza akademikoa**

Ikasketak (zehaztu)	Ikastetxea	Ikasketen amaiera-data	Egiaztagiriaren izena

**1- Prestakuntza akademikoa**

Ikasketak (zehaztu) \*

\_\_\_\_\_

Ikastetxea \* \_\_\_\_\_

Ikasketen amaiera-data \* \_\_\_\_\_

Egiaztagiriaren izena \*

\_\_\_\_\_

**Gratuondoko ikastaroak**

Izenburua	Amaiera-data	Ikastetxea	Ordu-kopurua	Egiaztagiriaren izena

**1- Graduondoko ikastaroak**

Prestakuntzaren egiaztigiriaren izena jarriko da. Agiri hau "Gratuondoko ikastaroak" atalaren 3. urratsean erantsi beharko da. Ordu-kopurua 5 digituko zenbaki bat izan behar da, eta 2 hamartar eraman ditzake.

Izenburua

\_\_\_\_\_

Amaiera-data

Ikastetxea \_\_\_\_\_ Ordu-kopurua \_\_\_\_\_

Egiaztagiriaren izena

\_\_\_\_\_

2023ko apirilaren 21a, ostirala

**Beste ikasketa edo ikastaro batzuk**

Izenburua	Amaiera-data	Ikastetxea	Ordu-kopurua	Egiaztagiriaren izena

**1- Beste ikasketa edo ikastaro batzuk**

Prestakuntzaren egiaztigiriaren izena jarriko da. Agiri hau "Beste ikasketa edo ikastaro batzuk" atalaren 3. urratsean erantsi beharko da. Ordu-kopurua 5 digituko zenbaki bat izan behar da, eta 2 hamartar eraman ditzake.

Izenburua

---

Amaiera-data

Ikastetxea \_\_\_\_\_ Ordu-kopurua \_\_\_\_\_

Egiaztagiriaren izena

---

**Ibilbide profesionala edo boluntariotzako ibilbidea**

Ibilbide profesionalaren edo boluntariotzako ibilbidearen egiaztigiriaren izena jarriko da. Agiri hau "Ibilbide profesionala edo/eta boluntariotzako ibilbidea" atalaren 3. urratsean erantsi beharko da. Esperientzia profesionalako nahiz boluntariotzako esperientziako hilabete-kopurua 5 digituko zenbaki bat izan behar da, eta 2 hamartar eraman ditzake.

**Esperientzia profesionala**

Kargua	Entitatea	Lan egindako hilabeteak	Eginkizunak	Egiaztagiriaren izena

**Boluntariotzako esperientzia**

Kargua	Entitatea	Boluntariotzan aritutako hilabeteak	Eginkizunak	Egiaztagiriaren izena

2023ko apirilaren 21a, ostirala

**1- Esperientzia profesionala**Kargua  
\_\_\_\_\_Entitatea  
\_\_\_\_\_

Lan egindako hilabeteak \_\_\_\_\_

Eginkizunak  
\_\_\_\_\_Egiaztagiriaren izena  
\_\_\_\_\_**1- Boluntariotzako esperientzia**Kargua  
\_\_\_\_\_Entitatea  
\_\_\_\_\_

Boluntariotzan aritutako hilabeteak \_\_\_\_\_

Eginkizunak  
\_\_\_\_\_Egiaztagiriaren izena  
\_\_\_\_\_**Egindako lanak eta argitalpenak**

Izenburua	Hemen argitaratua:	Data	Kontsultarako esteka edo egiazttagiriaren izena

**1- Egindako lanak eta argitalpenak**

Prestakuntzaren egiazttagiriaren izena jarriko da. Agiri hau "Egindako lanak edo/eta argitalpenak" atalaren 3. urratsean erantsi beharko da.

Izenburua  
\_\_\_\_\_Hemen argitaratua:  
\_\_\_\_\_

Data \_\_\_\_\_

Kontsultarako esteka edo egiazttagiriaren izena  
\_\_\_\_\_

2023ko apirilaren 21a, ostirala

**Egiaztatu beharreko hizkuntzak**

Hizkuntza	Zehaztu	Maila	Egiaztagiriaren izena

**1- Egiaztatu beharreko hizkuntzak**

Euskara egiaztatzeko, ez dago zertan titulurik aurkeztu, baldin eta ofizioz kontsultatzeko baimena ematen bada. Gainerako hizkuntzetarako, titulua adierazi beharko da, bai eta "Hizkuntzak jakitea" ataleko 3. urratsean erantsi ere.

Hizkuntza \*Hautatu aukera      Zehaztu

---

Maila

---

Egiaztagiriaren izena

---

**Azpimarratu beharreko beste alderdi batzuk**

Azpimarratu beharreko alderdiak

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK**

Zure erantzukizunpean adierazten duzu laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzula eta hori frogatzeko dokumentazioa duzula; dokumentazio hori Administrazioaren eskura jarriko duzula, eskatzen zaizunean; eskubidea aitortzen zaizun bitartean baldintza horiek betetzeko konpromisoa hartzen duzula; funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditzakeela; eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duela.

**Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpenak:**

1. Xede eta helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatu edo jaso dituzu, edozein administrazio zein entetatik, dela publikoa dela pribatua:

- Ez  
 Bai; hala bada, sartu datuak taulan.

Entitatea	Zenbatekoa	Egoera: eskatuta edo lortuta

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren organismo autonomoek eta bestelako entitateek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozedura batean sartuta zaude.

- Ez  
 Bai; hala bada, sartu datuak taulan.

Prozedura	Instantzia kudeatzailea

3. Ez zaude Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako inolako debeku-egoeratan.

4. Ez zaizu ezarri laguntza eta dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapenik, ez administrazio-arlakorik, ez zigor-bidekorik, eta ez duzu halakorik eskuratzeko legezko debekurik (ildo horretatik, kontuan izan behar dira Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean sexuagatiko diskriminazioa zehatzeko ezarritako zigor eta debekuak).

**BAIMENAK****Eskatzailearen baimen espresua**

Eskatzaileak baimena ematen du beka kudeatzen duen organoak ofizioz egiazta dezan aurretik ez dela beka hauen edo garapenerako lankidetzaren eremuko prestakuntzan unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen ematen zaizkien beste beka batzuen onuradun izan, EAEko aurrekontu orokorren kargura.

**DATU PERTSONALEN BABESA (DBLO)****Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:**

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak «Garapenerako lankidetzako laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

- **Arduraduna:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- **Helburua:** GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ARLOKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK, DIRULAGUNTZAK ETA BEKAK KUDEATZEA.
- **Legitimazioa:**
  - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean burututako eginkizun bat betetzeko.
- **Hartzaileak:**
  - Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa.
  - Gizarte Segurantzako organismoak
  - EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN KOOPERANTEEN ETA BEKADUNEN IZEN-ABIZENAK ARGITARATZEA.
- **Eskubideak:** Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- **Informazio gehigarria:** Gure webgunean kontsultatu dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza (<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/019500-cap2-eu.shtml>).

**Araudia:**

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES))

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673))

**AGIRIAK ERANSTEA****Ofiziozko egiaztapena**

Aplikatu behar den araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu, **ofizioz**, administrazio eskuduneari:

- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketa egunean dagoen (GSDN-Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia)
- ✓ Zerga-betebeharrak egunean dauden (EAEko eta Nafarroako foru-ogasunak eta Estatuko Zerga Agentzia)

Salbu interesdunak, arrazoiak emanda, horren aurka egiten badu. [Nola egikaritu aurka egiteko eskubidea](#)

**Baimenak**

**Baimena** beharrezkoa da instrukzio-organoak datu hauek egiazta ditzan. Hautatu, baimena emateko:

- Nortasun-datuak (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia)
- Errolda historikoa (EAEko udalak)
- Euskararen goi-mailako profil egiaztatua (Euskarako Titulu eta Ziurtagirien Erregistroa)
- Unibertsitate-titulazioaren egiaztagiria

Baimena ematen ez baduzu, prozeduran aurreikusitako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzu.

**Eskatutako dokumentu-motak**

Eskatutako dokumentuak	Erantsitako dokumentuak	Ekintzak
<b>Unibertsitate-titulazioaren egiaztagiria</b> (beharrezkoa, baimenik eman ez baduzu)		Erantsi/Bilatu/Emana
<b>Euskararen goi-mailako profil egiaztatua (Euskarako Titulu eta Ziurtagirien Erregistroa)</b> (beharrezkoa, baimenik eman ez baduzu)		Erantsi/Bilatu/Emana
<b>Errolda historikoa (euskal udalak)</b> (beharrezkoa, baimenik eman ez baduzu)		Erantsi/Bilatu/Emana
<b>Nortasun-datuak (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia)</b> (beharrezkoa, baimenik eman ez baduzu)		Erantsi/Bilatu/Emana
Graduondoko ikastaroak / Beste ikasketa edo ikastaro batzuk		Erantsi/Bilatu/Emana
Ibilbide profesionala edo/eta boluntariotzako ibilbidea		Erantsi/Bilatu/Emana
Lanak edo/eta argitalpenak		Erantsi/Bilatu/Emana
Hizkuntzak jakitea		Erantsi/Bilatu/Emana
Hala badagokio, erantsi hemen beste edozein dokumentu		Erantsi